



Oihangintzako eskuliburua

Ramón Andrés

Itzulpena: Castillo Suárez

Pamiela Poesia, 61

978-84-9172-368-4

2023. urtea - 96 or. - 15x21,5 cm

14,00 €


Ramón Andrésen poemen antologia euskarara itzulia

AZKENEKO ZUHAITZAK

Hauek dira geratzen zaizkigun zuhaitzak:
oraindik erdietsi ez ditugunak. Haien soilguneetan erabakitzen da
zein itzal egin gutako bakoitzarengan.
Beren modura, gorakako ahotsa dute,
aho inguruan eskuak turuta gisara jartzen dituenak
egiten duen bezala
bere ahotsa zeru-goietan entzun dadin
eta norbaitek hemen gaudenak zaindu gaitzan. Azkenduak.
Zuhaitz orok hildako bat babesten du eta izerdian
mantentzen du, bere egiten du eta babesean hartzen, zuhaitz-azalezko
eta orbelezko zoru bat ematen dio.
Bizi izan zirenengan atera daitezke onik basoak,
esan nahi baita, haiei buruz gordetzen dugun oroitzapenean.
Basoak defendatzen dituenak etxea edukiko du pagoaren kolorean.
Zuhaitz batzuek lurraren aurrekoak dirudite, haritzak
eta haginak baino lehenagokoak, esate baterako,
mundua sortu nahi baina ezin izan zuen esku galdu eta hilkor batean
sustraituta baitaude.

Entzun iezaiezue beren adarretan; ohartarazten digute, aholku ematen.

Atsedanaren fruitu guztiak dira.



Ramón Andrés
(Iruña, 1955)

Saiakeragilea, poeta eta musikaren ikastuna. Bere herrialdeko eta Latinoamerikako erakunde garrantzizkoek eskaturik, mintegi, hitzaldi eta irakurraldiak egiten ditu, eta, orobat, ikerketan eta ezagutzan transferentzian laguntzen du, batik bat Bartzelonako Unibertsitatean. 2015ean Vianako Printzea Kulturaren Saria eman zioten, eta 2018an akademiko sartu zen Reial Acadèmia Catalana de Belles Arts de Sant Jordi. 2022an «72-22 Iruñeko Nazioarteko Topaketak» programatu eta zuzendu zituen, eta 2023an Real Academia de Bellas Artes de San Fernandoko akademiko izendatu zuten.

SARIAK:

- Saiakera Sari Nazionala, 2021ean, *Filosofía y consuelo de la música* liburuagatik (Acantilado, 2020).
- Kritikaren Sari Nazionala, 2020an, *Los árboles que nos quedan* poema-liburuagatik (Hiperión, 2020).
- Vianako Printzea Kulturaren Saria, 2015ean, bere obra osoagatik.
- Estado Crítico Saria, 2015ean, *Semper dolens. Historia del suicidio en Occidente* (Acantilado, 2015).
- Bartzelonako Hiria Saria, 2005ean, *Johann Sebastian Bach. Los libros, las ideas y los días* saiakeragatik (Acantilado, 2005).
- Hiperión-Ciudad de Córdoba Saria, 1994an, *La línea de las cosas* poema-liburuagatik (Hiperión, 1994).

